

Bi begi tentazio

-Niri ez begiratu horrela-. Eta tragoa zuritoari.

-Zer ba? Urduri jartzen al zaitut?- Begirada zuzena, zuzenegia. Suzkoa.

Erantzun ezina tragoarekin irentsi nahi, baina kaka. Baso hutsa. –Beste bat?-.

Barra ertzera buelta. Bi begi bizkarretik behera, gerritik behera ... Ez dituzu ikusi baina sentitu dituzu, epel, umel. Begien orde z mihia pasa balizu bezala. Ezaxolarena egin duzu baina gerria kurbatu duzu, soinean dituen bi begien atsegingarri.

Bi zuritorekin itzuli zara bueltan.

–Orduan, mutilarekin jarraitzen al duzu?-.

Baietz zuk, buruarekin, 'beraz badakizu, alferrik zabiltz' esanez bezala.

–Orduan zergatik daramazu gau osoa nirekin bakarrik?-

Tragoa. Trago luzea.

Sorbaldak gora, ezjakin itxuran baina tximeletak sabelean. Hasperena. Beroa masailetan gora, eta izterretan behera.

-Zergatik zaude nirekin orduan?- berriz.

Hozka ezpainei.-Zer?- Musika altuaren aitzakia.

Ezpainak belarrira gerturatuta: - Zergatik zauden nirekin orduan-. Arnas epela belarrian. Birikak hustu zaizkizu.

-Ez dakit-. Benetan ez dakizu eta serioa da, baina ezin izan duzu irribarrea ezkutatu.

Irribarrea itzuli dizu eta ezpainei egin die hozka. Bereei, baina zuretan sentitu duzu. Ezpainak ireki zaizkizu bereei begira. Konturatu egin da. Tragoa.

Badakizu ez dagoela ondo, ez duzula egin behar. Baina zure gorputzak nahi du. Eta kabroiak badaki.

Galdera deseroso adina trago, musika ez dago altuago baina gero eta gertuago egiten diozue hitz elkarri. Berak, eta zuk. Garagardoarekin erantzundako galderek zure gorputzari pasa diote agintea; gero eta zailago da desioa disimulatzea.

Gero eta zailago da barrara heltzea; zailagoa, edalontziak hustu gabe itzultzea.

Beste bi zurito.

Basoa pasatzean, eskumuturretik behatzerainoko igurtzia. Dardara.

-Ui!- Zipriztindu egin duzu. Eskuarekin kendu dizkiozu bular aldeko tantoak. Gogor sentitu duzu bularra, sendo. Behar baino luzaroago zabilta lehortzen. Hasperena.

Bere begien bila, irribarre bihurri batekin egin duzu topo.

-Barkatu-. Zuri ere ihes egin dizu.

-Zergatik?- irribarre jostaria. Badaki ederki, urtzen ari zarela.

'Ukitu ditut hobeak' esan nahi zenion, baina barre tonto bat besterik ez zaizu atera.

Ezin diozu begiratu arnasa eten gabe eutsi. Hortzei begiratu diezu. Bihurri hozkatzen dute mihia. Bere ezpainei begira zaude, zuretan agertu diren arte.

'Ezin dut hau egin' pasatu zaizu burutik, baina mingainarekin igurtzi dizkiozu. 'Ez dago ondo' pentsatu duzu, baina zure gerria estutu diozu bereari. 'Xabik ez du horrelakorik merezi' errepikatu diozu zure buruari, bi eskuekin zugana zenekarren bitartean.

Alkoholak baldartutako mugimendu basatiekin iritsi zarete komonera, elkar irentsi behar duten bi gorputzen tango hordian. Hormaren kontra jarri eta alkandora ireki dizu, jan egin nahi duzu.

Mihia pasa dizu bularren artetik eta sua sentitu arren oilo ipurdia atera zaizu.

Baina ... -itxaron- esan diozu, hasperen artean -hau ez dago ondo-.

-Zergatik?- eta galdera amaitzerako gonatik gora sentitu duzu bere eskua.

Arnasa eten zaizu.

Beranduegi da.

Izterren artean hartu duzu bere aldaka eta gorputz osoa odolik gabe uzteko moduan xukatu dizkiozu ezpainak. Paretaren kontra estutu zaitu eta gogor sentitu duzu, arropa guztiak gurutzatzeko moduan. Odol guztiak ez ditu ezpainetan.

Une batez urrundu da, bakeroek eragindako tentsioa baretzeko eta gonapeko galtzerdiak eta kuleroak erantzi dituzu, zuk ere. Eskua pasa dizu izter artetik, behatza gora eramanez. Likak egin du gainerakoa. Estu-estu eginda hartu duzu barrenean, bulkada bakoitzarekin dar-dar eginez. Bere esku sendoak sentitu dituzu ipurmasailetan, min emateraino estutuz. Oraindik estuago nahi dituzu. Sorbalden gaintetik estutzen diozu burua, bere ahoa jateko. Irentsi egingo duzu. Gero eta barrurago sentitzen duzu, gero eta estuago. Hozka egin diozu lepoan. Esku bat askatu eta behatzak ahoan sartu dizkizu. Gero zilborretik behera sentitu dituzu, bilo artean. Hasperen batek egin dizu ihes eta zure aldaken itsasgora goxoa azkartu egin da. Berari ere kosta egiten zaio zutik mantentzea dardara artean. Arraskan jarri dituzu eskuak eta libre mugitu duzu gerria barruraino estutuz. Hezetasuna ipurmasailetan behera, mihia titiburuan bueltaka. Olatu geraezin batek hartu zaitu... -ba-noa...- esaten asmatu duzu. Indartsuago ekin du.

Hotzikarak hartu zaitu eta ezin izan duzu erraietatik zetorren oihua isildu.

Itsasbehera iritsi da zure aldaketara eta arnasarekin batera otzandu dira muxuak ere. Begietara begira geratu zaizu, izerdituta. Zakilak taupada eman du zure barrenean eta irribarre atera zaizu. Muxu gartsu batean urtu zarete.

* * *

Patsetan esnatu zara ohean, kostata. Betazalen lehen zirrikitutik ostikada bat eman dizu argiak. Puf! Egun on ... Jaikitzen saiatu zara, oraindik garuna kaskezurraren kontra estutzen zaizula. Uf.

Listua irensteko zailtasuna. Ura. Arraskatik, eskuaren laguntzaz. Oxigenoa bailitzan, arnasteko behar bazenu bezala. Buf, goragalea.

-Zer, parranda ona?- Xabi barrez sartu da komonera.

Ezin izan diozu begietara begiratu. Ispilutik ikusi duzu atzetik gerturatu eta sorbaldan muxu nola eman dizun. Zikin sentitu zara muxu xalo hori jasotzean. Dutzara sartu da.

Noizbait zu izandakoari begira geratu zara ispiluaren aurrean. Ezpain gorri erreak, zuritasun kezkarria eta rimell-ak marraztutako begi-zuloak. Hori zara gaur. Hori, eta bart egindako kaka. Xabiri kontatu behar diozu, 'jakin egin behar du'. Baina, nola? Zure begietan ez da erantzunik geratzen.

Lepauztaiko orban batekin hartu du zure arreta. Gertuagotik begiratu diozu. 'Ostia, txupoi bat'. Nahiko nabarmena da, 'lotsaren marka izango da, ondo merezia'.

-Ondo al hago?-

-Ez...- barrutik atera zaizu.

-Aspirina batekin konpontzeko moduan, hala ere.-

- ... - 'Nahiko lan'.

Esan egin behar diozu, berak deskubritu aurretik. Jakin egin behar du.

-Xabi...-

-Zer?-

-Hirekin hitz egin behar diat-

-Bai neska, bota-

'Horrela? bat-batean? uf...!' -Ez, nahiago diat salan, lasaiago.-

-Segituan joango naun orduan. Ondo al hago? seguru?- Bakarrik ari da hizketan.

Eseri eta jaiki zabilta salan, paseo urdurian. Eserita jarri zara sofan, burua esku artean hartu duzu 'dena izorratu dut'.

-Kito!- agertu da Xabi, lurrari begira aurkitu zaitu. -Bale, beldurtzen ari naun. Zer gertatzen dun?-

Burua altxa behar izan duzu. Xabiren irudia lausotu egin zaizu, begiak malkoz betetzean.

-Hanka sartu diat, Xabi. Huts egin diat- lurrera begira hustu duzu barrua.

Isilunea.

-Kontaidan gertatu dena eta nik erabakiko dinat hori.-

-Huts egin diat, hiri eta nire buruari.-

-Zer gertatu dun?- Eskutik heldu dizu. Ezin duzu bere goxotasuna jasan.

-Atzo beste mutil batekin egon ninduan...- Kosta egin zaizu esaldia amaitzea.

Zur eta lur geratu da Xabi, eskua askatu dizu. -Def... definitu 'egon'-.

Eskuekin estali duzu aurpegia, ihes egin nahian.

-Mutil batekin liatu haiz? - harriduraz lehenik - larrua jotzeraino?- zehaztapen bila, gero.
Lotsak ez dizu erantzuten utzi, baina Xabirentzat nahiko erantzun izan da. Bere begirada sentitu duzu burugainean, astun. 'Egidak oihu, haserretu hadi' deseatu duzu. Isilunea luze doa.
-Nor zunan? ezagutzen al dun?-
Buruarekin esan diozu ezetz.
-Gustatzen al zain?- Ez duzu zirkinik egin.
-Nik hi maite haut- atera zaizu azkenean.
Logelara joan da Xabi eta urtebete irudituz zaizkizun bost minuturen ostean jantzita itzuli da.
-Bazoaz?- ikarak mugitu dizu erreakzioa.
-Bueltatzen bat emango dinat, pentsatu egin behar dinat. Hik ere hobe dun hori egin. Gero hitz egingo dinagu, ados?- eskua sentitu duzu sorbaldan, goxotasunez. 'Nola zauritzen duen goxotasunak batek merezi ez duenean...'. Ia nahiago zenukeen oihu egin balizu. Atearen soinuak itzuli zaitu errealitatera. Joan da.
Lur jota geratu zara, higuina ematen dizu bart gauekoa oroitze hutsak. Dagoeneko ajea da arazorik txikiena, orduak pasa zenitzake zure burua gorrotatzen. Baina Xabi dago jokoan; beranduegi ez bada, behintzat. Itzuli egingo da eta mututasuna baino zerbait hobea eman beharko diozu. Bai. Hasteko, ideiak argitu behar dituzu eta horretarako, zure burua garbitu beharko. Ea ba, martxan.
Dutxak itxura berritu dizu, baina atzoko laztan basatiak gogoratu dituzu xaboiak igurtzi ahala. Saiatu zara azaletik ateratzen, baina soinean daramazu muxu eta fereka bakoitza. Froga guztiak ezabatzeraino ahalegindu zara igurtzen, baina etsipenez begiratzen diozu lepoaren eta sorbaldaren arteko marka salatariari: 'nola erori naiz hain baxu?'.
Txukun jantzi zara, zerbait jan eta egoerari fundamentuz aurre egiteko prest egon nahi duzu. 'Ea, Xabi maite dun. Berarekin egon nahi dun, gaur arte bezala'. Hori zaila izango da. Kaka, dena primeran zihoan eta orain dena kolokan gau txoro bateko hanka-sartzeagatik. 'Hori izan al dun? Ziur? Edo agian ez hago aseta Xabirekin eta horregatik ahalegindu haiz zerbait kanpoan bilatzen...'. Bai zera. Orain kezka bakarra Xabi berreskuratzea da. 'Bera maite badun eta berarekin egon nahi badun, ea barkatzen hauen. Hori. Azaldu huts handia izan dela baina ez dela berriz gertatuko eta ea barkatzen hauen. Eta hik? heure buruari barkatuko al dion?'. Hori gehiago kostako da. Baina tira.
Ate hotsa. Isilik sartu da Xabi, burumakur. Elkarren aurrean geratu zarete, zer esan jakin gabe. Bat-batean, ia automatikoki, elkar besarkatu duzue. Behar zenuen besarkada izan da, baina zauritua, pozoitua.
-Zer aldatu dun?- galdetu dizu bat-batean.
-Nola aldatu? - ez zenuen galdera hori espero- Atzo hanka sartu nian...-
-Bale, baina damututa al hago?-
-Noski baietz, ezin diat jasan. Nik ez diat horrelakoa izan nahi...-
-Hi ez haiz horrelakoa- moztu dizu hitza - mozkorra egongo hintzen eta hori dun guztia-

Sinetsi nahi zenioke. -Mozkorra beti iruditu zaidak aitzakia merkea Xabi, eta nireak ez zeukak aitzakiarik. Pentsatzen aritu nauk eta eromen honen erdian gauza bakarra zeukaat argi: maite haut eta hirekin egon nahi diat- serio begiratzen dizu- onartzen banauk oraindik.

-Ez dun ezer sentitzen beste harenganako? nola dakin ez dela berriro gertatuko?

-Ezin dik berriz gertatu, ez diat berriz hau pasa nahi. Ez zeukaat ezer bestearekin, zin egiten diat.

-Niri ez zin egin. - nekatuta dago - Ni ere pentsatzen aritu naun, eta amorrua baino gehiago sentitzen dinat beldurra. Galdu ote zaitudan beldurra.

-Ez esan halakorik Xabi - negarra atera zaizu - nola izan haiteke hain ona nirekin?

Zizpuru batekin erantzun dizu - saiatu naun hi gorrotatzen, ez pentsa... baina ezin dinat- berari ere malkoak irten zaizkio. Minduta dago. Elkar besarkatu eta negar egin duzue. Elkarri estu helduta, elkarri ihes egingo ote zenioten beldurrez bezala.

-Maite haut-

-Nik ere bai-

Muxu gazi bat eman diozue elkarri, malko zaporekoa. Muxu elbarria. Bi kopetak elkartuta besarkatuta geratu zarete, bakoitza bere barrenean gertatzen dena ulertu nahian. Kosta egiten zaizu orain arte bezala maitatzea eta bera ere oso minduta dago. Bien artean lubaki ikusezin bat dago orain eta horrek barrua puskatzen dizu. Bigarren muxu batean abiatu zara, oraingoan hobeto egiteko asmoz. Gogoz hartu zaitu berak. Elkar muxukatuz eta laztanduz egin duzue negar, lubaki hori hautsi nahian. Bat egin behar duzuela jabetuta erantzi dizu kamiseta. Begietara begira berea erantziz erantzun diozu. Patxadaz besarkatu zarete, elkarren azala sentituz. Muxu goxoagoak heldu dira, listua ugaritzen doa malkoak lehertu ahala. Mantso, erantzi duzue elkar, fereka artean. Goxotasunez jo duzue larrua, elkar sentituz, elkarri muxu emateari utzi gabe, arnasaldi aztoratuekin baina intziririk gabe. Lau eskuak estu lotuta lehertu zarete, joan etorri goxoan. Eta arnasa berreskuratzean barru-barrutik atera zaizu:

-Hirea nauk, laztana.

* * *

Lagunekin afaltzera irten zarete, aspaldiko partez. Bien arteko konplizitaterik ez da galdu zorionez, eta pixkanaka normaltasuna berreskuratzen doa. Tarteka, gertatutakoa gogoratu eta pentsakor geratzen da Xabi, minduta. Zerorrek ere oraindik ez duzu sentitzen merezi duzula. Baina, orbaindutako irribarreak sendatzen doaz; on egiten dizue betiko lagunekin egoteak. Parranda malapartatu hartatik lehen aldiz sentitzen zara itxaropentsu, beltzune hura atzean uzteko.

Azken asteetan ez bezala masailak mintzeraino egin duzue barre eta gauari segida emateko tabernara joan zarete. Jendetza dabil parrandan, elkarri gertutik segika pasa behar izan duzue taberna barrenera, bultzada artean. Xabik gidatu zaitu aurretik, eskutik helduta.

Irudi ezagun bat ikusi duzu taberna amaieran 'ezin da bera izan'. Zugana abiatu da 'ez mesedez'. Xabi gerritik eutsi duzu, gertuago. Xabiren aurretik pasatu da, zuri begira, zuzen.

'Eskerrak ez duen ezagutzen Xabik' pentsatu duzu. Ia atzean utzia zenuten, esku epel bat gerritik pasa dizunean. Atzera begiratu duzunean, bere begiak zenituen zain; jolasteko dago.

Kuleroak bustitzen sentitu dituzu.

Lamia